

LA CAIXA FUNDAZIOA: SOCIAL RESEARCH CALL 2020

XEDEA

Deialdi honen xedea da bikaintasunagatik nabarmentzen diren eta ikuspegi original eta berritzaile baten bidez egungo gizarte-erronkak sakon ulertzeko informazio sendo eta solidoa ematen duten datu kuantitatiboetan oinarritutako ikerketa sozialeko proiektuak laguntzea.

Proiektuek metodologia kuantitatiboan bidezko datuen analisisian oinarrituta egon behar dute, eta Espainia edota Portugal aipatu behar dituzte (edo bestela, horiei erreplikagarriak).

LAGUNTZAK

Aurrekontua guztira: **1,5 milioi €**

Finantzatu daitekeen gehienekoa: **100.000 € gehienez proiektu bakoitzeko.**

Gehienezko iraupena: **24 hilabete**

HARTZAILEAK

Lanean ari diren ikertzaileak, ibilbide zientifiko independentea egiaztatu dezaketenak eta beren oraintsuko ekoizpen zientifikoa berretsi dezaketenak. Hori dela eta, hautagaiak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Hautagaiak lehen kuartileko (Q1) aldizkarietan argitaratutako argitalpen bat egiaztatu behar dute, **Scopus-en Scimago Journal Rank (SJR)** edo **Web of Science-ren Journal Citations Report (JCR)** ranking-en arabera. Azken horretarako, Social Science Citation Index (SSCI) eta Science Citation Index Expanded (SCIE) indizeak soilik hartuko dira kontuan.
- Eskatzaileek deialdiaren epea baino 2 urte lehenago (hau da, 2018ko maiatzaren 20a baino lehen) lortutako doktoretza izan beharko dute.

Deialdia zabalik dago irabazi-asmorik gabeko ikerketa-erakunde batean ikerketa egiten ari diren nazionalitate guztietako ikertzaileentzat: **unibertsitateak eta egoitza Espainian edo Portugalen duten ikerketa-zentro publiko eta pribatuak.**

KOSTU HAUTAGARRIAK

Diru-laguntza malgutasunez erabil daiteke, baldin eta erabat esleitzen bada proiektuak zuzenean eragindako kostuak estaltzeko. Kostu zuzen hautagarriak dira proiektuaren garapenarekin zuzenean lotutako kostu espezifiko gisa identifika daitezkeenak, eta, beraz, zuzenean goetz dakizkiokeenak.

Zuzeneko kostu hautagarriak: Langilegoa, Bidaiak, Ondasunak eta Zerbitzuak, Azpikontratazioa, Ekipoa. Laguntzaren% 10, gehienez ere, soldata-osagarrietara bideratu daiteke (IN-arenak bakarrik).

Zeharkako kostuak: ez dira zeharkako kostuak finantzatzen.

GARRANTZITSUA: IIP-ak ezingo du nomina bidez ordainsaririk jaso deialdi honen kontura.

PROJECT LEADER-ak BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK

- Project Leaderrek UPV/EHUrekin funtzionario-lotura, kontratu-lotura edo bestelako lotura izan beharko du laguntza-eskaera aurkezten den unetik aurrera eta proiektuak irauten duen bitartean.
- Project Leader ikertzaile bakoitzak proiektu-proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du deialdira.

IKERKETA TALDEKO KIDEEK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK

- Ikertzaileek UPV/EHU-rekin lotura izan beharko dute eskaera aurkezteko unean.
- Obra-zerbitzurako kontratatutako ikertzaileek ezin izango dute parte hartu.
- Kanpoko erakunde bateko ikertzaileek parte hartu behar badute, jatorrizko erakundearen alde aurreko baimena beharko dute.

GARRANTZITSUA: Laguntza gauzatu bitartean UPV/EHU-rekin duten lotura amaitzen zaien ikerketa-taldeko kideek ezin izango dute gasturik egotzi egoera horrek irauten duen bitartean. Project Leader-a arduratuko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzari proiektua gauzatzean gertatzen diren bajen berri emateaz.

ESKAEREN AURKEZPENA

Proposamenak bi fasetan aurkeztuko dira:

- **Lehen fasea:** 2020ko apirilaren 27tik **ekainaren 1era** ([Bukaera data berria](#)). Proposamen laburrak (gehienez 3 orrialde).
- **Bigarren fasea:** 2020ko uztaila - iraila. Aurre-hautatutako proposamenak proposamen osoa aurkeztera gonbidatzen dira (15 orrialde, gehienez), eta Project Leader-aren eta bere taldearen (balego) "expertise"-a frogatzera.

Proposamenak eta eskatutako dokumentazio guztia ingelesez idatzita egon beharko dira. Deialdi honi buruzko informazio guztia ingelesez baino ez dago.

Baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskabideak (formatuari buruzkoak barne) baztertu egingo dira, eta ezin izango dira zuzendu.

Proposamenak anonimoak izan behar dira.

LEHEN FASEA: UPV/EHU-k APLIKAZIOAN PROPOSAMENA BALIOZKOTZEKO JARRAIBIDEAK

Project Leader-ak eskaera aurkeztu behar badu, [Ikerketaren arloko Errektoreordetzarekin](#) harremanetan jarri beharko da, UPV/EHU-ren baimena behar delako proposamena aurkeztu ahal izateko. Horrek esan nahi du erakundearen kudeatzaileak (OM) baliozkotu egin behar duela eskaera online plataformaren bidez.

Lehen faseko eskabideak aurkezteko epea:

2020ko ekainaren 1era arte, 14:00ak arte. ([Bukaera data berria](#)).

LEHEN FASEA: UPV/EHU-n ESKABIDEAK AURKEZTEKO PROZEDURA

DATA ESANGURATSUAK	ARDURADUNA	KUDEAKETA
2020ko maiatzaren 27rarte	PL	Project Leader-ak (PL) IaE -ri convocatorias.dgi@ehu.eus -era idatzita, eskaera aurkezteko asmoa adierazi beharko dio, aplikazioan proiektu proposamenaren eskaera baliozkotu dezagun, PL-ak betekizunak betetzen dituela laburki berrikusi ondoren.
2020ko ekainaren 1erarte (14:00) *(Bukaera data berria)	PL	PL-ak Caixaren aplikazioaren bidez aurkeztutako eskaera eta "Short Proposal"-a convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidaltzea, dokumentazioa artxibatzeko.

GARRANTZITSUA: Project Leader-a izango da bere **proiektu-eskaera** Caixaren [aplikazioan](#) aurkezteko arduraduna, deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako epean eta moduan.

HARREMANETARAKO UPV/EHU-n

E-mail: convocatorias.dgi@ehu.eus

HARREMANETARAKO LA CAIXA FUNDAZIO-an

E-mail: socialresearch@fundaciolacaixa.org

INFORMAZIO GEHIGARRIA:

<https://obrasociallacaixa.org/es/investigacion-y-becas/convocatorias-de-investigacion/convocatoria-de-investigacion-social/descripcion-del-programa>